

Gesto por la Paz

RUEDA DE PRENSA

PRESENTACIÓN DEL X ACTO DE SOLIDARIDAD CON VÍCTIMAS ORGANIZADO POR GESTO POR LA PAZ

Son parte de nuestro ser

Recientemente, en el Teatro Principal de Vitoria-Gasteiz, se ha celebrado el III Acto Institucional de Homenaje y Reconocimiento a las Víctimas del terrorismo con el que se ha pretendido reforzar la idea de la importancia que tiene para nuestra sociedad mantener en la memoria colectiva la existencia de miles de víctimas del terrorismo, *Mantengamos siempre viva la memoria y mantendremos viva la esperanza*. La Coordinadora Gesto por la Paz de Euskal Herria comparte esta necesidad de mantener viva la llama de su recuerdo y, en este sentido, realizará el próximo domingo, día 20 de diciembre, en Bilbao el X Acto de Solidaridad con las Víctimas.

Desde el primer acto que celebramos en el 2000, reclamando que no hubiera ninguna muerte más -*Nunca más. Gehiagorik ez*-, hemos utilizado muchos lemas, pero todos ellos basados en unas reivindicaciones claves como son la solidaridad frente al agravio, el reconocimiento frente al sufrimiento y la memoria frente a la ausencia. Hoy, diez años más tarde llamamos a la ciudadanía a asistir a un acto que reclama que las víctimas *Son parte de nuestro ser*.

En este acto trataremos de escenificar por qué consideramos que las víctimas son parte de nuestro ser a través de frases que portará cada uno de los participantes y de la construcción entre todos de una V de víctimas y una S de solidaridad, de sociedad, de ser.

Queremos hacer especial hincapié en que *son parte de nuestro ser* porque como personas nos tiene que invadir la solidaridad hacia quienes han sido brutalmente golpeados supuestamente en nuestro nombre. Consideramos que *son parte de nuestro ser* porque como colectivo, como sociedad, hemos de responder a una agresión que el terror hizo contra todos y que ellas, las víctimas, sufrieron directamente. Creemos que *son parte de nuestro ser* porque ni imaginamos un futuro que no tenga absolutamente presente la memoria de las víctimas, de lo que ellas significan, de lo que representa su testimonio. Sólo así habría espacio para un futuro digno y justo.

Después de casi 50 años de terror, las víctimas son la primera causa para deslegitimar el uso de la violencia. Su reconocimiento nunca podrá limitarse a un acto público, sino que necesariamente tiene que suponer el firme compromiso de nuestra sociedad frente a la violencia, desde el convencimiento de que social y políticamente la violencia no ha tenido ni tiene ninguna justificación, ninguna razón de ser, ninguna necesidad absoluta como pretenden hacer creer quienes aún la defienden y que

Gesto por la Paz

nunca, bajo ningún concepto tendrá ninguna contraprestación que pudiera interpretarse como el más mínimo signo de razón a quienes la utilizan.

La violencia terrorista ha distorsionado considerablemente valores y principios que debían ser nítidos en nuestra sociedad, como en las de nuestro entorno por ello resulta imperioso que finalice esta locura. El terror no ha servido absolutamente para nada más que para producir dolor y más dolor por lo que tiene que desaparecer ya de nuestras vidas. Y, sobre todo, el terrorismo ejercido durante tantos años ha sido y es absolutamente inmoral porque ha causado miles de víctimas y tiene que ser desterrado de una vez por todas de nuestra sociedad.

Desde Gesto por la Paz ofrecemos a toda la ciudadanía un cauce para expresar nuestro hartazgo de tanta violencia y dolor causado. Es necesario un compromiso público en contra del terrorismo para que quienes durante todos estos años han tratado de imponer sus proyectos y de doblegar la voluntad política de la sociedad, perciban el rechazo de la inmensa mayoría de los ciudadanos que no acepta ni la violencia, ni sus explicaciones, ni contextualizaciones. Después de diez años convocando actos de solidaridad con las víctimas, seguimos pensando que son imprescindibles porque, si bien es verdad que ellas son la primera razón que deslegitima la violencia, nosotros, el resto de la sociedad, somos quienes ineludiblemente tenemos que asumir la responsabilidad de hacer real esa total deslegitimación.

En este acto, Gesto por la Paz lanza una firme apuesta por la vida y la esperanza, frente a la tétrica oferta del terrorista: la muerte y el dolor. También apostamos por la reconstrucción moral de la sociedad que nunca, bajo ningún concepto puede olvidar a las víctimas de este horror. Y este año nuestra propuesta es asumir que las víctimas *son parte de nuestro ser*.

El domingo, 20 de diciembre, en el Parque de Doña Casilda (a la altura de la calle Gregorio de la Revilla) a las 13'00 h. celebraremos el X Acto de Solidaridad con las Víctimas como parte de nuestro ser. Invitamos a toda la ciudadanía a asistir al acto.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

12 de diciembre de 2009



Gesto por la Paz

PRENTSAURREKOA

BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEAK ANTOLATUTAKO BIKTIMEKIKO ELKARTASUNAREKO X. EKITALDIAREN AURKEZPENA

Gure baitaren zati dira

Oraintsu ospatu da Vitoria-Gasteizeko 'Principal' Antzokian terrorismoaren Biktimen Omenaldi eta Aitorpenerako III. Ekitaldi Instituzionala. Horren bitartez, terrorismoaren milaka biktima egotea memoria kolektiboan gordetzeak gure gizartearentzat duen garrantzia berretsi nahi izan da. *Bizirik eutsi diezaiozun gomutari eta bizirik eutsiko diogu itxaropenari.* Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundearen iritziz ere haien gomutaren garrari bizirik eutsi behar zaio eta, horregatik, **Biktimekiko Elkartasunerako X. Ekitaldia** ospatuko dugu Bilbon, abenduaren 20an, igandez.

2000. urtean beste heriotzarik ez izatea *–Nunca más. Gehiagorik ez–* eskatuz burutu genuen lehenengo ekitalditik aurrera, goiburu asko erabili izan dugu, baina guztiguztietan errebindikazio nagusi batzuk jasoz, hala nola: elkartasuna irainaren aurrean, aitorpena oinazearen aurrean eta gomuta ausentziaren aurrean. Gaur, hamar urte beranduago, dei egiten diegu herritarrei, biktimak ***gure baitaren zati direla*** aldarrikatuko duen ekitaldian parte har dezaten.

Ekitaldi honetan, biktimak zergatik dauden gure baitan adieraziko dugu partehartzaile bakoitzak eramango dituen esaldien bitartez eta guztion artean 'víctima' hitzari dagokion 'V' hizkia eta 'solidaridad', 'sociedad' eta 'ser' hitzei dagokien 'S' hizkia osatuz.

Gure baitaren zati direla nabarmendu nahi dugu, gizaki izanik, elkartasunez jokatu behar dugulako geure izenean eraso bortitza jasan dutenekin. ***Gure baitaren zati direla*** uste dugu, kolektibo bezala, gizarte bezala, beraiek, biktimek, zuzenean jasan zuten guztion aurkako izuak egindako erasoari erantzun behar diogulako. ***Gure baitaren zati direla*** uste dugu, burutik pasatu ere egiten ez zaigulako biktimen memoria, biktimek esan nahi dutena, beraien testigantzak adierazten duena kontuan hartzen ez duten etorkizunik. Horrela baizik ez da egongo etorkizun duin eta zuzenerako lekurik.

Izuz bustitako 50 urteren ostean, biktimak dira indarkeriaren erabilerari zilegitasuna kentzeko arrazoi nagusia. Beren aitorpena ezin da ekitaldi publiko batera murriztu; gure gizartearen indarkeriaren aurkako konpromiso sendoa izan behar du nahitaez, gizarte zein politika mailan, indarkeriak ez duela, ez izan ezta izango ere, inolako justifikaziorik edo funtsik; gainera, oraindik defenditzen dutenen iritzia aurka, ez dagoela horren beharrik eta ez duela erabiltzen dutenei arrazoi txikiena emate bezala interpreta daitekeen inolako ordainik jasoko konbentziturik.

Gesto por la Paz

Indarkeria terroristak dezente desitxuratu ditu gure gizartean zein inguruan argi eta garbiak izan beharko zuketen balio eta oinarriak eta horregatik nahitaezkoa da erotasun honekin amaitzea. Izuak ez du ezertarako balio izan, samina saminaren gainean eragiteko bakarrik eta, hori dela-eta, berehala desagertu behar du gure bizitzetatik. Eta, batez ere, hainbeste urtetan gauzatutako terrorismoa guztik ezmorala izan da eta gaur egun ere ezmorala da, milaka biktima eragin duelako, eta gure gizartetik desagertu egin behar du behin-betiko.

Bakearen aldeko Koordinakundeak bidea eskaini nahi die herritar guztiei, denok batera indarkeriaz eta honek eragindako minaz aspertuta eta nekatuta gaudela adieraz dezagun. Ezinbestekoa da terrorismoaren aurkako konpromiso publikoa, urteotan beren egitasmoak inposatzen eta gizartearen borondate politikoa menderatzen saiatu direnek ez indarkeria, ez beren azalpenak ez indarkeria testuinguru jakin batean sartzeko saiakerak onartzen ez dituen herritarren gehiengo zabalaren gaitzespena suma dezaten. Biktimekiko elkartasuna adierazteko ekitaldiak antolatzen hamar urte eman ondoren, ezinbestekoak direla uste dugu gaur ere, indarkeriari zilegitasuna kentzen dion lehenengo arrazoia beraiek badira ere, guk geuk, gainerako herritarrok nahitaez geure gain hartu behar dugulako indarkeriari zilegitasuna kentze hori egia bihurtzeko ardura.

Ekitaldi honetan, Bakearen aldeko Koordinakundeak biziaren eta itxaropenaren aldeko apustu tinkoa egingo du terrorismoak eskaintzen dituen heriotzaren eta saminaren aurrean. Beste alde batetik, izu honek eragindako biktimak inoiz eta inola ere ahaztu behar ez dituen gizartearen berreraikuntza moralaren aldeko apustua ere egin nahi dugu. Eta aurten, biktimak ***gure baitaren zati direla*** aldarrikatu nahi dugu.

Abenduaren 20an, igandez, Doña Casilda Parkean (Gregorio de la Revilla kalearen parean), 13'00an ospatuko dugu gure baitaren zati diren Biktimekiko Elkartasunerako X. Ekitaldia. Dei egiten diegu herritar guztiei parte har dezaten.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

2009ko abenduaren 12a

